

ARENE AYERZA OTEGUI

E Maila | Bertsoa | 2. saria

Ni Arene Ayerza Otegi naiz. Hamaika urteko neska Beasaindarra. Alkartasuna Lizeoan ikasten dut. Nire zaletasunik handiena musika da. Bost urterekin hasi nintzen panderoa jotzen eta zortzi urtetatik trikitixarekin jarraitzen dut. Ekitaldi batzuetan parte hartzeko aukera izan dut eta gustora ibili naiz. Hauetaz gain beste zaletasun batzuk ere baditut; marraztea, dantza egitea, musikarien kontzertu zein jaialdi eta bertsolariak entzutea... Bertsoarekin bigarren saria lortu nuela esan zidatenean, oso pozik jarri nintzen. Eskerrik asko lehiaketa honetan parte hartzeko aukera emateagatik.



MUSIKARIAK

Beethoven izan dugu

kriston musikoa

bere musika entzunda

irten zait malkoa.

beatzigarren sinfonia

izugarrizkoa

zuen gaitasun hori

zeukan berezkoa.

Mozart ere badugu

musiko bezela

denok ondo dakigu

hoberena zela.
sorkuntz lanetan zeukan
talentu itzela
ta denok hunkiturik
uzten gintuela.

Doinua:

Ikusi nuenian